BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

6176

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 18koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena; honen bitartez, Berdintasunaren aldeko 2011ko Emakunde Sarirako epaimahaiaren osaera jendaurrean jarri nahi da.

Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria sortzen eta arautzen duen irailaren 12ko 166/2006 Dekretuaren 1.2 artikuluari jarraikiz, sariketaren urteroko deialdia Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak emandako ebazpenaren bitartez egin behar da. Beraz, 2011ko uztailaren 26ko Ebazpenaren bidez, Berdintasunaren aldeko 2011ko Emakunde Sariaren deialdia egin da (abuztuaren 22ko EHAA, 158. zk.). Sari horren helburua emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko lanean nabarmendu diren pertsona fisikoen edo juridikoen (publikoak nahiz pribatuak) jarduera azpimarratzea eta aitortzea da. Hau da, hainbat ekintza, lan edo proiektu bultzatuz, emakumezkoen lana eta horien ahalduntzea aitortzeko alderdi garrantzitsuak hobetu dituzten pertsonak, edo beren ibilbidearen bitartez emakumearen garrantzia balioesteko eta duintzeko lanean nabarmen laguntzen duten pertsonak, edo Euskal Herrian sexuen arteko aukera- eta eskubide-berdintasuna sustatzeko lanean nabarmendu direnak

Aurrez aipatutako Dekretuko 3. artikuluaren arabera, epaimahai bat osatuko da Saria nori eman proposatzeko, eta erabaki hori jendaurrean jarriko da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpenez. Ebazpen hori, hain zuzen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Saria ematen duen ebazpena argitaratu baino hilabete lehenago, gutxienez.

Ondorioz, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 20.5 artikuluan ezarritakoa betetzeko ezintasuna justifikatu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Berdintasunaren aldeko 2011ko Emakunde Sariaren epaimahaia nortzuek osatuko duten jendaurrean jartzea:

Presidentea:

María Silvestre Cabrera andrea.

Idazkaria:

Arantxa Elizondo Lopetegi andrea.

Epaimahaikideak:

Marta Alaña Alonso andrea.
Jagoba Gómez Alonso jauna.
Xabier Legarreta Gabilondo jauna.
Cristina Sarduy Gainza andrea.
Martín Garitano Larrañaga jauna.

Laura Gómez Hernández andrea.

Izaskun Landaida Larizgoitia andrea.

Raquel Raposo Acevedo andrea.

Ana Alberdi Zubia andrea.

Lucía Martínez Odriozola andrea.

Teresa del Valle Morga andrea.

Arantza Campos Rubio andrea.

Maite Bilbao Otegui andrea.

Ana María Arrieta Maya andrea.

Bigarena.– Ebazpen honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 18a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.